

**2002an BULLYING KASUA GERTATU ZITZAIGUNEAN, OLABIDE  
IKASTOLAK LEHENETSI ZUEN BIKTIMARI BABESA EMATEA ETA  
ERANTZULEEI ZIGORRAK EZARTZEA**

**Olabide Ikastolaren Artezkaritza Kontseiluak argi du Ikastolak zuzen jokatu zuela, arlo pedagogikoari dagokionez, 2001-2002 ikasturtean DBHko ikasgela batean gertatu zen bullying kasua gertatu zenean; irakasleek, eskuartean zuten informazioa kontuan hartuz, halako egoeretarako ezarrita dauden prozedurak ezarri zituzten; bestalde, gertaeren berri osoa izan zuenean, ikastetxeak berak, biktimari babesa ematen saiatzeaz gain, eskolako parte hartze organoen bidez, eskolako talde guztiei eman zien egoeraren berri, eta hogeit egunean, espedientea izapidatu eta errudunak zigortu zituen, eta, horrez gain, jakinarazi zien gertatutakoa hezkuntzako agintariei eta Adin Txikikoen fiskalari.**

**Halakoak gertatzen direnetan, gehienetan, ikastetxe guztietako guraso eta klaustroek eragozpen handiak izaten dituzte informazio osoa eta zehatza jasotzeko.**

**Beraz, Artezkaritza Kontseiluak erabateko babesa eskaintzen die gertaera horri irtenbidea ematen saiatu ziren Ikastolako profesionalei.**

**Gaur zenbait komunikabidetan argitaratu diren gertaerak behar bezala landu genituen, argi eta garbi landu ere, Bullying-ar tratatzeko eskuliburuek erakusten duten bezala, ikastolako langile eta zuzendaritzako kideok. Esaterako, 2002ko ekainean egin genuen Batzar Orokorrean, guztiaren berri eman genien gurasoen ordezkari; irailean, berriz, ikasturte hasieran egiten diren bileretan, hartutako neurriak jakinarazi genizkien bileretara joan zien gurasoei; horrez gain, datu guztiak eskuartean zituenean, ekainean, Ikastolak berak eman zien hezkuntzako agintariei eta Adin Txikikoen fiskalari gertaeren berri, eta zegokion espedientea bideratu zuen. Betiere kasuari aplikatu dakizkikeen lege irizpideekin eta bestelako irizpide teknikoekin ere bat etorrita, Ikastolak gertaera jakinarazi zuen, batetik, erantzuleei zigorra ezartzearen, eta, bestetik, egintzarekin zerikusia zuten adin txikikoen irudia eta intimitatea gordetzearen.**

**Lehenengo eta behin, ikastolak, ikasleen eskubide eta beharrei buruzko Eusko Jaurlaritzaren Legearekin bat etorrita, espedientea ireki zuen ekainean 2002an. Ikerketa egin ondoren, bi ikasle kanporatu zituen behin betiko, eta beste lau, aldi baterako. Espedientea hogeit egunean izapidatu zen; hogeit egun, instruktoreek datu guztiak eskuartean eduki zituztenetik, zigorrak ezarri zituzten arte.**

**Ikastolako langileek egindako jakinarazpenek beste bi erabaki ekarri zituzten. Administrazio bideari dagokionez, hezkuntzako agintariak zuzena iritzi zioten ikastaldeko tutorearen eta klaustroaren jokabideari, alegia, agintarien ustez, eskuartean zuten**

**informazioa kontuan hartuta, zuzen jokatu zuten; bestalde, hezkuntzako agintarien ustez, kooperatibak hartu zituen halako egoeretan hartu beharreko neurri guztiak. Azterketa hori Olabideko profesionalak hartutako neurrien aldekoa zen, erabat.**

**Zigor bideari dagokionez, Olabidek Adin Txikikoen fiskalari egindako jakinarazpenaren ondorioz, egintzetan parte hartu zuten zortzi adingabeetako bat zigortu zuten; hari bakarrik ezar zekioken Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoa. Horren ondoren, eraso a jasandako nesken familiak akzio zibila hasi zuen ikastetxearen aurka, eta 24.000 euroko kalte-ordaina eskatu zuten. Epaiak 12.000 euroko kalte-ordaina ezarri du, baina Olabidek epai horren aurkako errekurtsioa aurkeztuko du. Hala bada, Artezkaritza Kontseiluak erabateko babesa eskaintzen die kasuari aurre egin zieten profesionalak, eta erabat ados dago egin zuten lanarekin.**

**Ikastolak, gertaera horiek izan zirenez geroztik, bizikidetza programak berriro aztertu eta kooperatibako familiei, irakasleei eta ikasleei zuzendutako bizikidetzarako dinamika espezifikokoak landu ditu. Bullying-a behin betiko desagertu dadin, behar-beharrezkoa da familien, irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzak eta teknika berriak, etengabe aldatzen eta hobetzen ari direnak, aplikatzea. Hartu beharreko neurrietako bat da FAMILIEK berek, irakaskuntza arloko profesionalak, hezkuntzako agintariek eta, oro har, gizarte osoak –bereziki, hedabideek- aurre egitea arazo honi. Haurrak, nerabeak eta gazteak beren identitatea eta nortasuna eratzten ari dira, eta hori babestearren, ez diezaien inork ere izena belztu, arduratsu eta harretaz jokatu behar dugu.**